

FUNTSEZKO

JARDUERAK

Edozein negozio eredu aurrera eramateko beharrezkoak da zenbait jarduera burutzea balorezko proposamena garatzeko, bezeroarengana iristeko, bezeroarekin harremanetan jartzeko eta diru sarrerak lortzeko.

Funtsezko jarduerak honela sailkatzen dira: produkzioa, arazoak konpontzea eta plataformako edo sareko jarduerak.

Badaude kanpoko enpresen esku utzi ezin daitezkeen funtsezko jarduerak, beti enpresa barruan egin beharrekoak. Adibidez, jatetxe bat baldin badaukazu eta arrakastaren gakoa prestatzen dituzun errezeta sekretuak baldin badira, ezin duzu beste enpresa baten esku utzi janaria prestatzeko lana, horixe baita zure negozioaren funtsezko jarduera. Beraz, ezagutzarekin, negozioaren know how delakoarekin, lotutako guztia ezin da besteen esku utzi.



Gure enpresa 3D-n inprimatzen duen enpresa bat da eta hortaz gure jarduera nagusia produkzioa izango da. Produkzioaren produktua sortzeaz arduratuko gara hasieratik bukaeraraino. Izan ere, materiala erosi egingo dugu baina diseinua eta "eskulana" nolabait esatearren (ezin zaio eskulana deitu makinak berak egiten duelako) guk burutuko genituzke.

Produktua ere guk produzituko dugu, esan bezala 3D inpresora erabiliz. Produktuaren entregaz FedEx enpresa arduratuko da, izan ere, hasiera batean eskaera handirik espero ez badugu ere, gure zerbitzua zenbat eta ezagunagoa egin, orduan eta bezero gehiago izatea espero dugu, demanda duen zerbitzua dela uste dugulako.

Onlinde denda izango da gure enpresaren euskarri nagusia, bertan jasoko ditugulako eskaerak eta beren produktu propioak inprimatzea nahi dutenek bertan egingo dituztelako beren diseinuak. Beraz, plataforma eta sareko jarduerak ere egin beharko ditugu: adibidez,

webgunearen gestioa, mantenua eta plataformaren promozioaz, hau da, publizitateaz arduratu beharko genuke. Horretaz kontrastatuko dugun marketin enpresa arduratuko da.

Beraz gure enpresaren oinarrizko jarduerak (hau da produkzioa) guk egingo dugu. Aldiz produktuen banaketa eta marketina beste enpresa baten esku utziko ditugu.

Salbuespena unibertsitateetako ikasleak eta zenbait erakundeetako kideak izango dira. Izan ere, leku horietan 3D inpresorak jarriko ditugu eta prozesu guztiaz beraiek arduratuko dira. Guk baliabideak eskainiko dizkiegu.

Helene Mendizabal
Unai Delpuerto
Oliver Zubillaga
Beñat Landa